

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN  
75/2022 TXOSTENA**

**Gaia:** Egonkortze prozesuen ondoriozko deialdi eta oinarri orokorrak zein espezifikoak onartzea

**Espediente tramitatzaileria:** Idazkaritza saila

**Espediente zenbakia:** IDA\_DEK1385 (2022)

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.e artikulua eta 4.1.b.5. artikulua

**Aurrekariak**

**Lehena.-** 2022ko azaroaren 7an Eudelek hautaketa prozesuen oinarri orokorren zein espezifikoaren ereduak bidali zituen.

**Bigarrena.-** 2022ko azaroaren 25ean udal osoko bilkurak Bizkaiko Foru Aldundiari kudeaketa gomendioa egitea onartu zuen, epaimahaiak BFAtik bideratzeko.

**Hirugarrena.-** 2022ko azaroaren 28an Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariak Egonkortze prozesuen ondoriozko deialdi eta oinarri orokorrak zein espezifikoak onartzeko proposamena egin du. Hurrengo deialdi eta oinarri bereziak onartzea proposatu da:

2.- A1 azpitaldeko Oinarri bereziak:

2.1.- Administrazio Orokorreko Goi Mailako teknikari plaza.

2.2.- Administrazio Bereziko Goi Mailako teknikari plaza.

2.3.- Administrazio Bereziko Zuzendari plaza.

3.- A2 azpitaldeko Oinarri bereziak:

3.1.- OLHUIko irakaslearen-mekanika plaza.



- 3.2.- OLHUIko irakaslearen-oinarrizko formakuntza (letrak) plaza.
- 3.3.- OLHUIko irakaslearen-oinarrizko formakuntza (zientziak) plaza.
- 3.4.- OLHUIko irakaslearen-soldagintza (letrak) plaza.
- 3.5.- OLHUIko irakaslearen-sukaldaritza plaza.
- 3.6.- ASS arduradun plaza.
- 3.7.- Erizain plazak.
- 3.8.- OGZko antolakuntzako teknikari plaza.
- 3.9.- Musika Eskolako irakaslea-bateria plaza.
- 3.10.- Musika Eskolako irakaslea-baxu elektrikoa plaza.
- 3.11.- Musika Eskolako irakaslea-bibolina plaza.
- 3.12.- Musika Eskolako irakaslea-biolontxelo plaza.
- 3.13.- Musika Eskolako irakaslea-flauta plaza.
- 3.14.- Musika Eskolako irakaslea-gitarra elektrikoa plaza.
- 3.15.- Musika Eskolako irakaslea-gitarra plaza.
- 3.16.- Musika Eskolako irakaslea-hizkuntza musikala plaza.
- 3.17.- Musika Eskolako irakaslea-klarinete plaza.
- 3.18.- Musika Eskolako irakaslea-piano plaza.
- 3.19.- Musika Eskolako irakaslea-saxofoi plaza.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E600B2D3800T6K8V5K6K5H3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Data: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- 3.20.- Musika Eskolako irakaslea-triki tixa/pandero plaza.
- 3.21.- Musika Eskolako irakaslea-tronpeta plaza.
- 3.22.- Musika Eskolako irakaslea-txistu plaza.
- 3.23.- Gizarte Langile plazak.
- 3.24.- Zuzendari-koordinatzaile plaza.
- 3.25.- Lan Orientatzaile plazak.
- 3.26.- Administrazio Bereziko Erdi Mailako teknikari plaza.
- 3.27.- Administrazio Orokorreko Erdi Mailako Gazte informatzailea plaza.
- 3.28.- Administrazio Orokorreko Erdi Mailako teknikari plaza.
- 3.29.- Administrazio Bereziko Erdi Mailako teknikari plaza.
- 3.30.- Administrazio Bereziko Erdi Mailako teknikari plaza.
- 3.31.- Administrazio Bereziko Erdi Mailako teknikari plaza.
- 3.32.- Administrazio Bereziko Erdi Mailako teknikari plaza.
- 4.- C1 azpitaldeko Oinarri bereziak:
- 4.1.- Administrazio Orokorreko Administrari plazak.
- 4.2.- Administrazio Bereziko Delineatzaile plaza.
- 4.3.- Administrazio Bereziko Informatika laguntzaile plaza.
- 4.4.- Administrazio Orokorreko Kultura Animatzaile plaza.



5.- C2 azpitaldeko Oinarri bereziak:

5.1.- Administrazio Orokorreko Administralari laguntzaile plazak.

5.2.- Arreta Laguntzaile plazak.

5.3.- Administrazio Orokorreko Gida turistiko plazak.

5.4.- Administrazio Bereziko Gidari plaza.

5.5.- Administrazio Bereziko Ofizial plazak.

5.6.- Harreragila-Sarrera kontrolatzaile plazak.

5.7.- Igeriketa monitore-sorosle plaza.

5.8.- Kirol monitore plaza.

6.- LT taldeko Oinarri bereziak:

6.1.- Administrazio Bereziko atezain plazak.

6.2.- Etxez etxeko laguntzaile plazak.

6.3.- Administrazio Bereziko garbitzaile plazak.

6.4.- Administrazio Bereziko peoi plazak.

6.5.- Sukaldari laguntzaile plazak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E600B2D3800T6K8V5K6K5H3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Data: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



## Oinarri juridikoak

### 2.1. Aplikagarria den araudia

- Enplegu publikoan bitartekotasuna jaisteko premiazko neurrien 20/2021 Legea, abenduaren 28koa
- Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa
- Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea, uztailaren 6koa

### 2.2. Azterketa juridikoa

2.2.1. Egonkortze prozesuak eta horien konstituzionaltasuna

2.2.2. Egonkortze-eta kontsolidazio-prozesuak eta aplikatu beharreko araudia kasu bakoitzean

2.2.3. Hautaketa prozesuko irizpideak: Titulazio eta baldintzak

2.2.4. Hautaketa prozesuko irizpideak: merituen balorazioa

2.2.5. Hautaketa prozesuko irizpideak: Justifikazioa

2.2.6. Hautaketa prozesuko irizpideak: Efectibo eta gastuen bikoizketa

2.2.7. Kontentsazio ekonomikoak

2.2.8. Prozedura eta espedientea

2.2.9. Eskumenak

#### 2.2.1. Egonkortze prozesuak eta horien konstituzionaltasuna

Hasteko, argi izan behar da ordenamendu juridikoko arau gorenak, Konstituzioak, 23.2 eta 103. artikuluetan derrigortzen duela enplegu publikora sartzera berdintasunez eta meritu eta gaitasunen printzipioak kontuan hartuz. Printzipio horiek modu onargarrian erabiltzeko Konstituzio Auzitegiaren irizpideak zehatz-mehatz bete behar dira eta irizpide horiek momentu oro izan behar dira kontuan, hau da, ez bakarrik egonkortze plana edo Lan Eskaintza Publikoak onartzerakoan, baizik eta deialdiak eta oinarriak onartzen direnean ere.



Konstituzio Auzitegiaren irizpideok zentzu honetan laburbildu daitezke:

- Lehiatzeko askatasuna eztaba daezina da, eta ezinezkoa da titulazio-baldintzak betetzen dituen edozein herritarri sarbidea murriztea.
- Aukera eman du proposatzen diren moduko egonkortze prozesuak egitea une historiko bakar batean eta lege-mailako arauak baimenduta, baina ez da behin eta berriz antola daitekeen sistema bat.<sup>1</sup>
- Oposaketa objektiboa guztiz konstituzionala da.
- Lehiaketa-oposaketa egin daiteke, oposaketak %60a suposatzen badu eta lehiaketak %40a. Gainera, lehiaketan hainbat meritu kontuan hartu behar dira eta meritu horietako bakoitzak ez du %33a gainditu behar.<sup>2</sup>
- Ezin da ezarri izaera diskriminatzailea duen baldintzarik<sup>3</sup>
- Ez dira onargarriak deialdietan erreferentzia indibidualizatuak eta zehatzak egitea.<sup>4</sup>
- Funtzio publikoan sartzeko ezin dira eskatu meritu edo gaitasunekin lotuta ez dauden bestelako baldintzak<sup>5</sup>.

<sup>1</sup> Konstituzio Auzitegiaren 111/2014 epaia

<sup>2</sup> Auzitegi Gorenaren 2009ko urriaren 14ko epaia.

<sup>3</sup> Konstituzio Auzitegiaren 193/1987 (5. Oinarri Juridikoa), Konstituzio Auzitegiaren 47/1990 Epaia (6. Oinarri Juridikoa), Konstituzio Auzitegiaren 353/1993 epaia (6. Oinarri Juridikoa) eta 166/2001 Epaia (2. Oinarri Juridikoa).

<sup>4</sup> Konstituzio Auzitegiaren 50/1986 Epaia (4. Oinarri Juridikoa), Konstituzio Auzitegiaren 67/1989 Epaia (2. Oinarri Juridikoa), Konstituzio Auzitegiaren 27/1991 Epaia (4. Oinarri Juridikoa), Konstituzio Auzitegiaren 353/1993 Epaia (5. Oinarri Juridikoa) eta Konstituzio Auzitegiaren 73/1998 Epaia (3. Oinarri Juridikoa).

<sup>5</sup> Konstituzio Auzitegiaren 167/1998 Epaia (4. Oinarri Juridikoa)



- Oinarriak termino berezi eta oso zehatzetan ezartzea eragotzi behar da, aldez aurretik finkatutako pertsona-multzo bati diskriminazio positiboa eraginez.<sup>6</sup>
- Antzeko lanpostuetan izandako esperientzia ezin da era diferentean baloratu. Hau da, oro har ezin da era diferentean baloratu Administrazio zehatz batean izandako esperientzia.<sup>7</sup>
- Merituak orokorrak izan behar dira, pertsonen erreferentzia egin barik edo deialdia egiten duen administrazioaren pertsona konkretuei bakarrik aplikagarri izan barik.
- Merezimenduek ez lukete oposizio-fasea gainditzeko balio behar, salbu eta lege-mailako arauen batek justifikatzen eta baimentzen badu (balizko motxila-efektua), oposizioa lehiaketa bihurtzen ari garelako *de facto*.

Izan ere, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen hitzaurrean ere hurrengoa jasotzen da:

“...  
...

*En cualquier caso, el TJUE comparte la postura, defendida por España, de que no cabe en nuestra Administración la transformación automática de una relación de servicio temporal en una relación de servicio permanente. Esta opción está excluida categóricamente en el*

*Derecho español, ya que el acceso a la condición de funcionario de carrera o de personal laboral fijo sólo es posible a raíz de la superación de un proceso selectivo que garantice los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad.*

...  
...

*Entre las condiciones que, de acuerdo con la jurisprudencia constitucional, han de darse para que no quepa apreciar infracción alguna del principio de igualdad de acceso a cargos y empleos públicos del artículo 23.2 de la Constitución se encuentran, en*

<sup>6</sup> Konstituzio Auzitegiaren 67/1989 (5. Oinarri Juridikoa)

<sup>7</sup> Konstituzio Auzitegiaren 281/1993 Epaia, Auzitegi Gorenaren 2012ko apirilaren 25eko Epaia (7091/2010 Zenb.) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 1994ko otsailaren 23ko epaia, Scholz Cagliariariko Unibertsitatearen aurka, C-419/92 Epaia eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2005eko maiatzaren 12ko eta 2006ko urriaren 26ko Epaia, Batzordea Italiaren aurka.



*primer lugar, que se trate de una situación excepcional; segunda, que sólo se acuda a este tipo de procedimientos por una sola vez, pues de otro modo se perdería su condición de remedio excepcional y tercero, que dicha posibilidad esté prevista en una norma con rango legal (STC 12/1999, de 11 de febrero de 1999).*

... ”

Hortaz, ezinbestekoa da berdintasuna, meritua eta gaitasun printzipioak errespetatzea eta egonkortze prozesuen salbuespenezko izaera argi izatea, eta beraz, modu mugatuan arauak interpretatzea . Hori guztia argi izanda, proposatutako oinarriek ez dituzte esandako baldintzak betetzen.

## **2.2.2. Egonkortze-eta kontsolidazio-prozesuak eta aplikatu beharreko araudia kasu bakoitzean.**

Aurretik komentatu dugunaren harira, egonkortze prozesuak 2017ko Aurrekontu Orokorraren Legean, 2018ko Aurrekontu Orokorraren Legean, 14/2021 Errege Dekretu Legean eta 20/2021 Legean arautu dira, salbuespenezko tresna moduan Europatik datozen eskakizunei irtenbidea emateko helburuarekin, bizi dugun aldi baterakotasun maila altuari irtenbidea emateko.

Ostera, kontsolidazioak Enplegatu Publikoen Oinarriak arautzen dituen 5/2015 Testu Bateginean dauka oinarri, hain zuzen ere, 4. Xedapen Iragankorran<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Enplegatu Publikoen Oinarriak arautzen dituen 5/2015 Testu Bateginean **4. X.I.: “Disposición transitoria cuarta. Consolidación de empleo temporal.**

*1. Las Administraciones Públicas podrán efectuar convocatorias de consolidación de empleo a puestos o plazas de carácter estructural correspondientes a sus distintos cuerpos, escalas o categorías, que estén dotados presupuestariamente y se encuentren desempeñados interina o temporalmente con anterioridad a 1 de enero de 2005.*





Xedapen Iragakor hori 2005ean Europako Batzordeak Espainiari egindako ohartarazpen baten ondorioz sartu zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan, hain justu ere, administrazio publikoak zeukan aldi bateratasun tasa altuaren ohartarazpenaren ondorioz.

Xedapen Iragakorrean egotea ere aipatu behar da, izan ere, Xedapen Iragakorren helburua da erraztea erregulazio zaharretik erregulazio berrira arteko igarotzea. Berez, Xedapen Iragakorrek modu murriztailean erabili behar dira, eta zehatz-mehatz mugatu behar dira dagokion xedapen iragakorraren aplikazio denborazkoa eta materiala.

Gaur Egungo Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 4. Xedapen Iragakorra borondatezkoa da Udalarentzat eta urteetan bere erabilera mugatua izan da erreposizio tasari lotuta daudelako.

Konsolidazio prozesuak egiteko hurrengo baldintzak bete behar dira:

- Egiturazko plazak izan behar dira
- Aurrekontuko zuzkidura izan behar da
- 2005eko urtarrilaren 1a baino lehen bitarteko edo aldi baterako jardunean dauden plazak edo lanpostuan izan behar dira
- Prozesu irekiak dira
- Lehiaketa-oposaketa sistema ezartzen da

---

*2. Los procesos selectivos garantizarán el cumplimiento de los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.*

*3. El contenido de las pruebas guardará relación con los procedimientos, tareas y funciones habituales de los puestos objeto de cada convocatoria. En la fase de concurso podrá valorarse, entre otros méritos, el tiempo de servicios prestados en las Administraciones Públicas y la experiencia en los puestos de trabajo objeto de la convocatoria.*

*Los procesos selectivos se desarrollarán conforme a lo dispuesto en los apartados 1 y 3 del artículo 61 del presente Estatuto.”*



- Beste merezimendu batzuen artean, herri-administrazioetan emandako zerbitzuden bora eta deialdiaren xede diren lanpostuetan izandako esperientzia baloratu ahal izango dira.

Kasu honetan, legeak “deialdiaren xede diren lanpostuetan” esaten duenean, ulertzen da ezin dela lanpostu konkretuan izandako esperientzia baloratu, baizik eta antzeko lanpostuetan izandako esperientzia baloratu beharko litzatekeela. Hau da, aurretiaz aipatutako Konstituzio Auzitegiaren doktrinarekin bat, lanpostu konkretuko esperientzia baloratzea ez da zuzena, salbu eta argi eta objektiboki justifikatzen bada zergatik baloratu behar den lanpostu konkretuan izandako esperientzia. Oro har, diskriminazio positiboa ekidin behar da Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren irizpideekin bat.

- Lehiaketa ezin da erabakigarria izan

**Horretaz gain, azaroaren 11ko 7/2021 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko kidegoei eta eskalei buruzko Legeak 2. Xedapen gehigarrian hurrengoa jaso du:**

*“Disposición adicional segunda. Procesos excepcionales de consolidación.*

*Sin perjuicio de lo dispuesto en la disposición adicional anterior, las administraciones públicas podrán realizar, con carácter excepcional, procesos especiales de consolidación de empleo para el acceso a la función pública vasca a través del sistema de concurso, en el marco de lo dispuesto en la legislación básica estatal sobre el empleo público.”*

Beraz, Lege horrek kontsolidazioari buruz hitz egiten du, ez egonkortzeari buruz; dena den, enplegatu publikoen oinarrizko araudira jotzen du lehiaketaren arauak kontuan izateko, hau da, aurretik aipatutako 4. Xedapen Iragankorrera, besteak beste, eta 4. Xedapen gehigarriak ez ditu proposatutako prozedurak eta balorazioak arautzen.



Bi figuren arteko ezberdintasun nagusienak dira:

	<b>Egonkortzea (20/2021 Legea)</b>	<b>Kontsolidazioa (TREBEP)</b>
<b>Plazak egonkortzeko izaera</b>	Derrigorrezkoa	Borondatezkoa
<b>Erreposizio tasa</b>	Ez dago erreposizio tasarik	Erreposizio tasa errespetatu behar da
<b>Plazak/Lanpostuak</b>	Plazei buruz hitz egiten da	Lanpostu edo plazei buruz hitz egiten da
<b>Epea</b>	2017/12/31 baino lehen	2005/01/01 baino lehen
<b>Etengabetasuna</b>	Etengabeen aldi bateratasunean beteta	Ez etengabeen
<b>Hautaketa sistema</b>	Lehiaketa-Oposaketa edo Lehiaketa ezarri ahal da	Lehiaketa-Oposaketa ezarri ahal da
<b>Izapidetzeko epeak</b>	Epe konkretuak daude	Ez dago epe konkreturik

Beraz, ikus daitekeen moduan, nahiz eta bi figuren helburua bera izan (aldibaterotasunarekin amaitzea) arautegi eta izaera ezberdinak dauzkate; eta beraz, egonkortze prozesuko arauak aplikatzen badira horietara jo behar dugu osotasunean; eta ostera, kontsolidazioaren arauak aplikatu nahi badira 4. Xedapen Gehigarria eta azaroaren 11ko 7/2021 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko kidegoei eta eskalei buruzko Legearen xedapen gehigarriak aplikatu behar dira bere osotasunean.

### 2.2.3. Hautaketa prozesuko irizpideak: Titulazio eta baldintzak

Kontuan izan behar da oinarrietan jasotako parte hartzeko baldintzak Bermeoko Udaleko Lanpostuen Zerrendan jasotako baldintzekin eta Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginak jasotako baldintzekin bat etorri behar direla.

Adibide moduan, Musika eskolako irakasleen kasuan hurrengo jaso da oinarrietan, X espezialitatean Irakasle titulu ofiziala, 2618/66 Dekretuaren arabera, edota



aurreragokoak badira ere, dekretu horrek homologatutakoa edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.

Lanpostuen zerrendan ez da aurreikusten horrela eta Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 76.artikuluaren<sup>9</sup> arabera A2 taldekoa izanik, gradua eskatzen da. Hortaz, jasotako baldintzak ez dira zuzenak.

#### 2.2.4. Hautaketa prozesuko irizpideak: Merituen balorazioa

20/2021 Legearekin bat, hautaketa sistemak hauek izan daitezke:

- Legearen 2.1 artikulua aplikatzen den kasuetan (Plazak 2017ko abenduaren 31a baino lehen aldibaterotasunean eta etengabeen beteta badaude): **Lehiaketa-Oposaketa**
- 6. Xedapen Gehigarria eta 8. Xedapen Gehigarria aplikatzen den kasuetan (Plazak edo pertsonak 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldibaterotasunean eta etengabeen beteta badaude): **Lehiaketa**

Azken hori da proposatzen dena (lehiaketa bidezko oinarriak onartzea). Dena den, argi izan behar da ez dela derrigorrezkoa hautaketa sistema horiek aplikatzea, izan ere, 20/2021 Legeak ez du eragin gabe uzten Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 61. artikulua eta Udalak daukan autonomia eskubidea. Hori horrela, derrigortasuna dago plazak egonkortzeko, ez hautaketa sistema konkretuak erabiltzeko.

<sup>9</sup> Urriaren 30ko 5/2015 Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginaren 76. artikulua: " Grupo A: Dividido en dos Subgrupos, A1 y A2.

*Para el acceso a los cuerpos o escalas de este Grupo se exigirá estar en posesión del título universitario de Grado. En aquellos supuestos en los que la ley exija otro título universitario será éste el que se tenga en cuenta."*



20/2021 Legearen 6. Xedapen Gehigarriarekin bat<sup>10</sup> eta 8. Xedapen Gehigarriarekin bat<sup>11</sup>, salbuespenez eta bakar batez, lehiaketa aplikatzen denean hurrengo baldintzak bete behar dira:

- Prozesuak mugatzeko debekua mantentzen da. Horrek esan nahi du, ez formalki, ez materialki ezin dela mugatu lanpostuak betetzen dituzten pertsonak ez diren beste pertsona batzuk lanpostuetara aurkeztea eta, beharrezko puntuazioa izanez gero, plaza lortzeko aukera izatea.

Proposatzen diren oinarrietan ematen du prozesuak mugatzen direla hurrengo puntuetan:

1. Oinarri orokorren 2. m atalean: parte hartzeko baldintza orokorren artean jasotzen da "deialdia egin duen Udalean ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategoria bereko lan-kontratuko langile."

<sup>10</sup> 20/2021 Legearen 6. Xedapen Gehigarria: "**Disposición adicional sexta. Convocatoria excepcional de estabilización de empleo temporal de larga duración.**

*Las Administraciones Públicas convocarán, con carácter excepcional y de acuerdo con lo previsto en el artículo 61.6 y 7 del TREBEP, por el sistema de concurso, aquellas plazas que, reuniendo los requisitos establecidos en el artículo 2.1, hubieran estado ocupadas con carácter temporal de forma ininterrumpida con anterioridad a 1 de enero de 2016.*

*Estos procesos, que se realizarán por una sola vez, podrán ser objeto de negociación en cada uno de los ámbitos territoriales de la Administración del Estado, Comunidades Autónomas y Entidades Locales y respetarán, en todo caso, los plazos establecidos en esta norma."*

<sup>11</sup> 20/2021 Legearen 8. Xedapen Gehigarria: "**Disposición adicional octava. Identificación de las plazas a incluir en las convocatorias de concurso.**

*Adicionalmente, los procesos de estabilización contenidos en la disposición adicional sexta incluirán en sus convocatorias las plazas vacantes de naturaleza estructural ocupadas de forma temporal por personal con una relación, de esta naturaleza, anterior al 1 de enero de 2016."*



2. Oinarri orokorren 10.5 atalean: "Berdinketa hausteko irizpideak.  
Aurreko 10.4 atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, gainera, berdinketak gertatzen badira, ordena ezartzeko kontuan hartuko da, lehenik eta behin, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duen hautagaiaren alde, deitzen den eskala, azpieskala edota kategoria berdinetan; bigarrenik, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da."
3. Oinarri espezifikoen 4.1.1 atalean: "Lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako."  
Beraz, esperientzia gabeko hautagaiek ezingo dute parte hartu prozesuetan (behintzat, euskarazko azterketetan, non kasu batzuetan derrigorrezkoak eta baztertzaileriak izango diren).  
Adibide moduan hurrengo aukera jasoko dugu: Hautagai batek 20 puntu dauzka titulazio eta probak gainditzeagatik (doktoretza dauka, masterra, IT txartelak, atzerriko hizkuntzak, karrerako funtzionario izateko frogaren bat gaindituta) baina ez dauka esperientziarik edo 5 puntu baino gutxiagoko esperientzia dauka, beraz, nahiz eta onartua izan ez du prozesuan aurrera egingo.
4. Oinarri espezifikoen, I. eranskinean a2 atalean, esperientzia espezifikoa modu osagarrian baloratzean: "Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren **osagarri** gisa, baremo honen arabera: ..."
- Hau da, birritan baloratzen da esperientzia bera.
5. Oinarri espezifikoen 4.1. atalean, kasu batzuetan, Lanpostuen zerrendan jasotzen diren parte hartzeko baldintzak moldatu dira Adibidez, musika eskolako irakasleen zenbait plazetan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E600B2D3800T6K8V5K6K5H3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Data: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E600B2D3800T6K8V5K6K5H3



Beste alde batetik, kontuan izan behar da azaldutako Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta 2022ko urriaren 18an Auzitegi Goreneko 4. sekzioak emandako 3737/2022 epaia (2145/2021 errekurtsua). Epaia horretan, besteak beste, planteatzen da ea legezkoa da deialdia egiten duen administrazioaren esperientzia beste administrazioetako esperientzia baino gehiago baloratzeko aukera eta hurrengoa ondorioztatzen da:

*“Tampoco puede deducirse del conjunto del expediente y de las actuaciones el motivo por el que el mismo trabajo deba valorarse de tan diferente manera cuando de lo que se trata es de apreciar la experiencia, o sea los servicios prestados. A falta de la imprescindible explicación e, insistimos, aun dando por cierto que, además del recurrente, los dos recurridos que vieron amortizadas sus plazas, ejercieron continuamente funciones de guarda, debemos concluir que el distinto trato dado a uno y a otros carece de justificación objetivay razonable y, por tanto, incurre en la vulneración del artículo 23.2 de la Constitución y, en relación con él, de su artículo 103.3.*

...

*La estimación implica anular de las bases generales y específicas los apartados que permiten puntuar el doble los servicios prestados como guarda en las plazas vinculadas a la convocatoria y, en consecuencia, supone que se puntúen por igual los de los aspirantes que han desempeñado funciones de guarda. Asimismo, comporta el derecho del Sr. Rubén a que, si como consecuencia de la nueva valoración de los servicios que deba realizarse alcanzare la puntuación suficiente para superar el proceso selectivo, su nombramiento produzca efectos desde el mismo momento en que los produjeron los de quienes fueron nombrados en su día. Y, todo ello deberá efectuarse sin anular el nombramiento de ninguno de los ahora recurridos en aplicación de la jurisprudencia que impide trasladar a los aspirantes beneficiados por ella las consecuencias de la actuación indebida de la Administración en la cual ninguna responsabilidad tienen [sentencias n.º 1046/2022, de 20 de julio (casaciónº 6185/2020) y las que en ella se citan].*

Bermeoko Udalean egindako lanagatik esperientzia gehiago baloratzea modu objektibo eta arrazoituan justifikatu behar izan da eta justifikazio hori espedientearen ez da ageri.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E600B2D3800T6K8V5K6K5H3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Data: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Zentzu berean, Valentziako Administrazioarekiko Auzien 8. Epaitegiaren apirilaren 27ko 80/2022 epaia (315/2021 Proz.) ere badaukagu, non esaten den:

*"...Pues bien, en este caso, al igual que el supuesto contemplado por la aludida sentencia, se puede concluir que no es irrazonable que se prime la experiencia adquirida en el desarrollo de funciones iguales o similares que las propias del puesto que se aspira, pero lo que sí resulta irrazonable es que dicho beneficio no resulte de la comparación sino de la administración en la que se han desarrollado tales funciones por lo que, en principio y salvo que se acredite la existencia de tales diferencias -lo que no se ha acreditado en el presente supuesto-, no resulta aceptable ponderar de manera distinta de la experiencia profesional previa en función, exclusivamente, de la Administración donde tales servicios se prestaron, por lo que este motivo de impugnación procede estimarlo.*

...

*La pretensión consistente en que se posibilite a todo opositor a obtener el 100% del concurso deriva del mismo derecho de acceso a la función pública -artículo 23.2 de la CE-, derecho que debe respetar la Administración en el ejercicio de su potestad de autoorganización y discrecionalidad técnica..."*

Beraz, aurreko gutzia kontuan hartuz, hurrengoak bete behar izan dira prozesuetan eta oinarrien arabera ez dira betetzen:

1	Prozesu irekia izatea
2	Lehiaketan talde, eskala edo kategoriako esperientziak kontuan izatea
3	Lehiaketa ez izatea diskriminatzailea

## 2.2.5. Hautaketa prozesuko irizpideak: Justifikazioa

Aurretik esandako esperientzia espezifikoaren balorazioa ez justifikatzeaz gain, gaineratu behar da espedientean ez direla orokorrean justifikatu lehiaketaren irizpideak. Hau da, ez da justifikatu zergatik emango zaizkion, adibidez, 80 puntu esperientziari; zergatik ematen zaion puntuaketa bera unibertsiteateko masterra izateari edo





doktoregoko titulazioa izateari; zergatik ematen zain puntuaketa bera karrerako funtzionarioa edo langile finkoa izateko oposizio-fasea gainditzeari edo bitarteko prozesuko oposizio-fasea gainditzeari.

Horretaz gain, oinarri espezifikoaren b atalean "Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan", nahiz eta gehienez 20 puntuko balorazioa eman, kontuan hartzen dira 20 puntu baino gehiagoko merituak. Adibidez, baxu elektrikoaren irakaslearen oinarri espezifikoetan, b atalean, 97,50 puntu banatzeko aukera dago, nahiz eta gehienez 20 puntu eman ahal izan.

### 2.2.6. Hautaketa prozesuko irizpideak: Efektibo eta gastuen bikoizketa

Oinarri orokorren 5.b atalean hurrengoa jaso da: *b) Lanpostuaz jabetzeko unean lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, eta egonkortze-deialdietan plaza lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, hutsik geratzen diren plazak esleituko dira. Horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiak egindako hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du.*

*Lanpostuaz jabetzeko unean eszedentzia-egoerara igarotzeko inguruabarrak baliozkoak izateko, izendapen-proposamena jakinarazi eta gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da eskaera.*

Atal horrek talka egiten du 20/2021 Legearen 2.5. atalak zera jaso du: *"5. De la resolución de estos procesos no podrá derivarse, en ningún caso, incremento de gasto ni de efectivos, debiendo ofertarse en estos procesos, necesariamente, plazas de naturaleza estructural que se encuentren desempeñadas por personal con vinculación temporal."*

Beraz, oinarri orokorrak ez datoz bat 20/2021 Legearen 2.5 artikuluekin.

Gainera, oinarri orokorrek ez diote izendapen berria zein epetan egin behar den eta hautagai horrek praktikak egin eta gainditu beharko baditu, nahiz eta uler daitekeen horrela izan beharko litzatekeela; aintzat izan behar da kasu horietan ere 2024ko abenduaren 31a baino lehen ebatzi behar direla hautaketa-prozesuak.

### 2.2.7. Kontentsazio ekonomikoak



20/2021 Legearen 2.6. artikuluan<sup>12</sup> egonkortze prozesuetako hautaketa prozesuak gainditzeko ez dituztenek konpentsazio ekonomikoa jasotzeko aukera aurreikusi da. Konpentsazio ekonomikoari buruz hitz egiten da eta ez kalteordainari buruz, izan ere, kalteordaina izango bazen kaltea baloratu beharko genuke.

Ezari den konpentsazio ekonomia da: Lansari finkoko hogeit hamar eguneko baliokidea zerbitzu-urte bakoitzeko, gehienez, hamabi hilabetera arte. Eta urtebetetik beherako aldiak hilabetea hainbanatuko dira.

Kontuan izan behar da konpentsazioa jasotzeko hautaketa prozesuan parte hartu beharko dela. Legeak ez diosku parte hartzeak zer esan nahi duen; beraz, Udalak zehaztu behar izan du parte-hartzea zer den. Txosten hau sinatzen duenaren ustetan, parte-hartzeak esan nahi du deitzen diren frogetan benetan parte hartu behar dela. Hau da, eskaera aurkezte hutsarekin ez dela nahikoa, frogetan parte hartu behar dela zein merituak aurkeztu behar direla.

---

<sup>12</sup> 20/2021 Legearen 2.6. artikulua: *“6. Corresponderá una compensación económica, equivalente a veinte días de retribuciones fijas por año de servicio, prorrateándose por meses los periodos de tiempo inferiores a un año, hasta un máximo de doce mensualidades, para el personal funcionario interino o el personal laboral temporal que, estando en activo como tal, viera finalizada su relación con la Administración por la no superación del proceso selectivo de estabilización.*

*En el caso del personal laboral temporal, dicha compensación consistirá en la diferencia entre el máximo de veinte días de su salario fijo por año de servicio, con un máximo de doce mensualidades, y la indemnización que le correspondiera percibir por la extinción de su contrato, prorrateándose por meses los períodos de tiempo inferiores a un año. En caso de que la citada indemnización fuere reconocida en vía judicial, se procederá a la compensación de cantidades.*

*La no participación del candidato o candidata en el proceso selectivo de estabilización no dará derecho a compensación económica en ningún caso.”*



Horretaz gain, ondo koordinatu beharko dira kargu uzteak eta kargu hartzeak, aurretiazko abisuak epez egin eta irizpideak zehaztu beharko dira horien kontrola eramateko.

Oinarrietan ez da jaso parte hartzetzat zer ulertuko den eta espedienteen ez da ageri kreditu atxikipena dagoenik konpentsazio ekonomiko horiei aurre egiteko.

### 2.2.8. Prozedura eta espedientea

20/2021 Legearen 2.2 artikularekin bat<sup>13</sup>, deialdiak 2022ko abenduaren 31a baino lehen argitaratu beharko dira.

Hautaketa-prozesuak 2024ko abenduaren 31rako bukatuta egon behar dira, berme guztiekin.

Kontuan izan behar da 2022ko urriaren 18an Auzitegi Gorenaren 4. sekzioak emandako 3737/2022 epaiaren arabera oinarriak zeharka errekurritu daitezkeela, behin hautaketa-prozesuak amaituta ere.

Azkenik, deialdi bakoitzeko espediente bat zabaltzea aholkatzen da, etorkizunean helegiterik baldin badago, deialdi konkretuarengan eraginak izateko.

### 2.2.9. Eskumena

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.g<sup>14</sup> atalaren arabera oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzeko eskumena Alkatearena da.

<sup>13</sup> 20/2021 Legearen 2. artikulua (2. eta 3. Paragrafoak): *La publicación de las convocatorias de los procesos selectivos para la cobertura de las plazas incluidas en las ofertas de empleo público deberá producirse antes del 31 de diciembre de 2022.*

*La resolución de estos procesos selectivos deberá finalizar antes del 31 de diciembre de 2024.*

<sup>14</sup> Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 *El Alcalde es el Presidente de la Corporación y ostenta las siguientes atribuciones: g) Aprobar la oferta de empleo público de acuerdo con el Presupuesto y*



### 3. Ondorioak

Aurreko guztia kontuan hartuz, egonkortze prozesuen ondoriozko deialdi eta oinarri orokorrak zein espezifikoak onartzeko erabaki proposamenari **kontrako txostena** egiten zaio.

Laburbilduz, hauek dira ondorio nagusiak:

#### **Egonkortze prozesuak eta horien konstituzionaltasuna**

Ezinbestekoa da berdintasuna, meritua eta gaitasun printzipioak errespetatzea eta egonkortze prozesuen salbuespeneko izaera argi izatea, eta beraz, modu mugatuan arauak interpretatzea. Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren irizpideak kontuan izan behar dira prozesuak konstituzionalak izateko eta proposatutako oinarrietan ez dira horiek errespetatzen.

#### **Egonkortze- eta kotsolidazioa-prozesuak eta aplikatu beharreko araudia kasu bakoitzean**

Egonkortze-eta kotsolidazioa-prozesuek arautegi eta izaera ezberdina daukate; eta beraz, egonkortze prozesuko arauak aplikatzen badira osotasunean horietara jo behar dugu eta, ostera, kotsolidazioaren arauak aplikatu nahi badira 4. Xedapen Gehigarria bere osotasunean aplikatu behar da.

#### **Hautaketa prozesuko irizpideak: Titulazio eta baldintzak**

Oinarrietan jasotako parte hartzeko baldintzak Bermeoko Udaleko Lanpostuen Zerrendan jasotako baldintzekin eta Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginak jasotako baldintzekin bat etorri behar dira eta proposatutako baldintza batzuekin ez da horrela egin.

#### **Hautaketa prozesuko irizpideak: Merituen balorazioa**

*la plantilla aprobados por el Pleno, aprobar las bases de las pruebas para la selección del personal y para los concursos de provisión de puestos de trabajo y distribuir las retribuciones complementarias que no sean fijas y periódicas.*



Prozesuak mugatzeko debekua mantentzen da eta lehiaketa ezin da diskriminatzailea izan. Hainbat adibide jaso dira aurreko bi premisak zalantzan jartzen.

Kontuan izan behar da azaldutako Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta 2022ko urriaren 18an Auzitegi Goreneko 4. sekzioak emandako 3737/2022 epaia (2145/2021 errekurtsua), besteak beste. Epaia horretan, ondorioztatzen da ez legezkoa dela deialdia egiten duen administrazioaren esperientzia beste administrazioetako esperientzia baino gehiago baloratzea, inolako justifikazio objektibo eta arrazoizko barik.

Gure espedientean ez da ageri inolako justifikaziorik.

### **Hautaketa prozesuko irizpideak: Justifikazioa**

Espedientean ez dira justifikatu lehiaketa baloratzeko irizpideak.

### **Hautaketa prozesuko irizpideak: Efektibo eta gastuen bikoizketa**

Oinarri orokorren 5.b atalak gastu eta efektibo bikoizketa dakar eta hori ez dator bat 20/2021 Legearen 2.5 artikulua jasotakoarekin.

### **Konpentsazio ekonomikoak**

Legeak konpentsazio ekonomikoak ezarri ditu egonkortze prozesuetatik ondorioztatzen diren hautaketa prozesuetara aurkeztu eta plaza lortzen ez duten enplegatuentzat.

Prozesuan parte hartzearen esanahia zehaztu behar izan da eta ondo koordinatu behar dira kargu uzteak eta kargu hartzeak, aurretiatzko abisuak epe egin beharko dira eta irizpideak zehaztu beharko dira horien kontrola eramateko.

Espedientean ez dago kreditu atxikipenik aurreikusita.

### **Prozedura eta espedientea**

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen epeak errespetatu behar dira.



Gainera, aintzat izan behar da oinarriak zeharka errekurritu daitezkeela eta deialdi bakoitzeko espediente bat zabaltzea aholkatzen dela, etorkizunean helegiterik baldin badago, deialdi konkretuarengan eraginak izateko.

### Eskumena

Oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzeko eskumena Alkatetzarena da.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalte barik. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Alkatetzak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2022ko azaroaren 28an

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E6000B2D3800T6K8V5K6K5H3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Data: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



1.Eranskina	EGONKORTZEA					KONTSOLIDAZIOA
	EAOL 2017	EAOL 2018	20/2021 LEGEA			TREBEP
SARTZEN DIREN PLAZAK	<p><b>19.Bat.6. Art</b></p> <p>90 % de las plazas que, estando dotadas presupuestariamente, hayan estado ocupadas de forma temporal e ininterrumpidamente al menos en los tres años anteriores a 31 de diciembre de 2016.</p> <p><b>Sectores:</b> Plazas de personal que presta asistencia directa a los usuarios de los servicios</p>	<p><b>19.Bat.9 Art</b></p> <p>Plazas de naturaleza estructural que, estando dotadas presupuestariamente, hayan estado ocupadas de forma temporal e ininterrumpidamente al menos en los tres años anteriores a 31 de diciembre de 2017.</p> <p><b>Sectores :</b>personal de los servicios de administración y servicios</p>	<p><b>2. Art</b></p> <p>Plazas de naturaleza estructural que, estén o no dentro de las relaciones de puestos de trabajo, plantillas u otra forma de organización de recursos humanos que estén contempladas en las distintas Administraciones Públicas y estando dotadas</p>	<p><b>6. X.G.</b></p> <p>Plazas de naturaleza estructural que, estén o no dentro de las relaciones de puestos de trabajo, plantillas u otra forma de organización de recursos humanos que estén contempladas en las distintas Administraciones Públicas y estando dotadas</p>	<p><b>8.X.G.</b></p> <p>Plazas vacantes de naturaleza estructural ocupadas de forma temporal por personal con una relación, de esta</p>	<p><b>4. X.I.</b></p> <p>Puestos o plazas de carácter estructural correspondientes a sus distintos cuerpos, escalas o categorías, que estén dotados presupuestariamente y se encuentren desempeñados interina o temporalmente con anterioridad a 1 de enero de 2005.</p>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatuz ahal dozu.  
Kodea:  
07E6000B2D3800T6K8V5K6K5H3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Datea: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia



	sociales, Policía Local, personal de gestión tributaria y recaudación y de inspección y sanción de servicios y actividades.	generales, así como otros servicios públicos.	presupuestariamente, hayan estado ocupadas de forma temporal e ininterrumpidamente al menos en los tres años anteriores a 31 de diciembre de 2020.	presupuestariamente, hubieran estado ocupadas con carácter temporal de forma ininterrumpida con anterioridad a 1 de enero de 2016.	naturaleza, anterior a 1 de enero de 2016.	
HAUTAKETA SISTEMA	LEHIAKETA (%40)–OPOSAKETA (%60)		LEHIAKETA (%100)		LEHIAKETA-OPOSAKETA	
LEP-A ONARTU ETA ARGITARATU	2022ko ekainaren 1a					Ez dago epemugarik
DEIALDIA ONARTU ETA ARGITARATU	2022ko abenduaren 31a					Ez dago epemugarik
DEIALDIA EBATZI	2024ko abenduaren 31a					Ez dago epemugarik



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikokoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E6000B2D3800T6K8V5K6K5H3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
28/11/2022  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/11/2022  
17:51:39

EXPEDIENTE ::  
2022IDA\_DEK1385  
Datea: 25/11/2022  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

